



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezero nagusiak diru sarrera txikiak dituzten pertsonak edo kalean daudenak dira. Diru gutxi izan ohi dutenez iruditzen zaigu gure proposamena erakargarria izan daitekeela haientzat. Ondorioz, antzeko beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia da, hau da, gaur egun jende asko dago kale egoeran eta gure bezeroak izatea nahi dugu. Janaria falta ohi zaienez, gure aplikazioa erabiliz merke erostea lortuko dute, 3€ ingururekin jatordu bat egiteko moduan egongo dira. Dena dela, bestelako janaria erosteko aukera duenak ere, aurrezteko erabili lezake aukera hau.